

21. ^{æek} korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA



Txillardegi. 21. KORRIKAREN omendua

B1

KORRIKAK denetariko¹ omendua izan ditu: pertsona ezagunak, elkarte edo taldeak (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Euskaltzaindia, Durangoko Azoka, KORRIKAREN sortzaileak...), baita anonimoak ere (euskara-ikasleak, transmisioa ahalbidetu zuten emakumeak...). 21 KORRIKAK, euskara batuaren 50. urteurrena ospatu berri² dela aprobetxatuta, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi omentzea erabaki du, euskara batuaren aita.

Txillardegi (1929-2012), donostiar hizkuntzalaria, idazlea eta politikaria izan zen.

Txillardegi 1929ko irailaren 27an jaio zen, Donostiako Antigua auzoan. Ama piano-irakaslea zen; aitak fabrika txiki bat zuen, litografiak egiten zituen. Gurasoak euskaldunak ziren, baina etxean gaztelaniaz mintzatzen ziren; horregatik, Txillardegi gazteak bere kabuz hasi behar izan zuen euskara ikasten, 1948an. Frankismoko garai haietan, Txillardegik gertutik ezagutu zituen Ondarretako **espetxe-ko³ gorabeherak⁴**, Euskal Herriko **egoera latzaren⁵** kontzientzia hartu zuen, eta euskara eta Euskal Herria auke-ratu zituen bere bizitzaren **ardatz⁶**. 1954an, Txillardegi ez-izena erabiltzen hasi zen, bere **jaiotetxearen⁷** ondoko etxearen izena.

Omendua, Txillardegi

Euskara batuaren 50. urteurrena ospatu berri dugula, 21. KORRIKAK Txillardegi omenduko du, "euskaldunon eta euskararen historian egindako gauzarik inportante-ena berari **zor⁸** diogulako, ziur aski: euskara batua, estandarra, sortu izana". Txillardegik **ondare⁹** handia utzi zuen literaturan, **ikerkuntzan¹⁰**, irakaskuntzan, euskalgintzan... Euskal Herriak euskara, bertoko hizkuntza, beharrezkoa duela **aldarrikatu¹¹** zuen. Klika egin zien euskarari eta herriari.



Euskarak goi-mailako erabilera eduki ahal izateko, hizkuntza bateratua sortu behar zela **nabarmendu¹²** zuen Txillardegik. **Izan ere¹³**, Arantzazuko Biltzarrak 1958ko **txostena¹⁴** egiteko (askoren ustez, euskara batuaren **sorrera-agiria¹⁵**) Txillardegik aurreko urtean idatzitakoa hartu zuten oinarri.

Txillardegiri eta haren ingurukoei zor diegu euskara herrigintzaren oinarrian jarri izana. Ordura arte, arraza zen ardatza, ez hizkuntza. **Etena¹⁶** garbia zen.

Koldo Zuazo (2012/01/17)

Azpiratu forma zuzenak, eta esan: esaldi hauek egia ala gezurra dira?

EGIA GEZURRA

- | | | |
|--------------------------|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 1. Gurasoek euskaraz mintzatu/mintzatzea/mintzatzen ez zekitenez, Txillardegik bere kabuz ikasi zuen. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 2. Frankismoaren garaian hasi zen euskara ikasteko/ikasten/ikastea . |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 3. 1954an, Txillardegi ezizena hartu/hartzea/hartzeko erabaki zuen, bere jaiotetxearen izena. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 4. Goi-maila ikasten ari zenean, batua sortzeko/sortu/sortzea beharra aldarrikatu zuen. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 5. 1958an ekin zioten euskara batua sortzea/sortzeari/ sortzeko . |

1. **Denetariko:** de todo tipo; *de toutes sortes*
2. **Berri:** recién; *récent*
3. **Espetxe:** prisión; *prison*
4. **Gorabehera:** peripecia; *péripétie*
5. **Egoera latz:** difícil situación; *situation dur*
6. **Ardatz:** eje; *axe*
7. **Jaiotetxe:** casa natal; *maison natale*
8. **Zor:** adeudar; *devoir, (être) en dette*
9. **Ondare:** patrimonio; *patrimoine*

10. **Ikerkuntza:** investigación; *recherche*
11. **Aldarrikatu:** reivindicar; *revindiquer*
12. **Nabarmendu:** destacar; *distinguer*
13. **Izan ere:** de hecho; *en fait*
14. **Txosten:** informe; *report*
15. **Sorrera-agiria:** documento fundacional; *document fondateur*
16. **Eten:** ruptura; *rupture*



KORRIKA kulturaleko **eskaintzari**¹⁷ buruzko artikulua idaztean, arazoak izan ditugu hitz batzuk gogoratzeko, eta ZER berba erabili dugu hutsune horiek betetzeko. Lotuko duzu ZER bakoitza dagokion hitzarekin? Aukerak, artikulua azpian dituzu.

DANTZHARIAK

Kontzertua da, batez ere. Lau musikaririk (gitarra, akordeoia, kontrabaxua eta txistua) dantzarako musika jotzen dute, eta AIKO **zereko** (1) dantza-maisuak oinekin eta gorputz osoarekin kantuan ariko dira. **Zer** (2) bakoitza ezberdina izanen da, inprobisazioa ere gure **zeraren** (3) parte baita.

ENKARGUZ

ENKARGUA. Kanta bat egiteko enkargua da. **Zerak** (4) hala nahi badu, musika-konposizioa eta hitzak sortu, eta **zer** (5) batean grabatuko dira.

IKUSKIZUNA¹⁸. Ikuskizunean, enkarguzko sormen-lanak jendaurrean egingo dira.

GURE OROITZAPENAK

FILMA (2018ko iraila). 12 nazioarteko eta euskal zinemagile bildu dira Joseba Sarrionandiaren 12 poema 12 film laburretan **zertzeko** (6).

IKUSKARIA (2019ko martxoa). Musika, hitzak eta ikus-tuntzuzkoa formatu handiko **zerean** (7) eskainiko dira.

OHOLTZA¹⁹ (Beñat Krolem artistaren performancea)

"Oholtza" bat-bateko performancean, bertsolariek hartuko dute parte. Ikuskizun honetan, Beñat Krolemek **zerak** (8) egingo ditu, pieza-multzoak (egurra, LED argia...), bere gorputza eta bertsolarien gorputzak erabiliz.

JULE (Hortzmuga Teatroa)

Familientzako kale-ikuskitzuna da. Eraikuntza bat bota egin nahi dute, baina bertako **zer** (9) batek ez du handik irten nahi; izan ere, ametsa, edo, hobe esanda, hainbat amets bete gabe ditu oraindik.

MUSUA (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)

Familientzako ikuskizuna da. "Mundua mundu denetik, eguzkia biraka ari da, eta gu haren inguruan. Eta dei egiten dio zerari (10) esnatzeko. Munduak biraka segi dezan. Eguzkiak ez ezik, musuek ere biraka jartzen dutelako mundua. Eta musuek biraka jartzen gaituztelako gu".

AUKERAK:

TRADIZIO ESKULTURA TALDE	LUR EMANALDI ²⁰ BIZTANLE	ESTUDIO BEZERO IKUSKIZUN	PANTAILARA(TU)
1) _____		6) _____	
2) _____		7) _____	
3) _____		8) _____	
4) _____		9) _____	
5) _____		10) _____	

17. Ikuskizun: espectáculo; *spectacle*

18. Eskaintza: oferta; *offre*


19. Oholtza: tablado; *estrade*

20. Emanaldi: representación; *représentation*


DANTZHARIAK



JOSEBA SARRIONANDIA



OHOLTZA BEÑAT KROLEM




04 Denbora-pasak

ESALDIA OSATU

Hitz hauen sinonimoak aurreko orrietan irakurri dituzu. Idatzi dagozkien zenbakien azpian, eta Txillardegiren esaldi ezagun bat osatuko duzu.

1. Soinu
2. Mandatu
3. Sorkuntza
4. Ondasun
5. Zur
6. Abesti
7. Taula
8. Ospetsu
9. Garai
10. Lantegi
11. Ere
12. Jarrai



IBILBIDE GEZURTIA

Txillardegirekin hasi eta amaitzen den ibilbide honetako adierazpenen artean, gezurrezko batzuk sartu ditugu. Zein?

ERANTZUN GUZTIAK:
<http://www.korrika.eus/euskalte-gietarako-unitate-didaktikoak.html>

2

21. KORRIKAK gogorarazi nahi duen bezala, euskara batuak mende erdia beteko du aurten.

EGIA... GEZURRA...

3

Euskara batuaren gurasoetako bat izan arren, Euskaltzaindian ez dute inoiz Txillardegi euskaltzain oso izendatu.

EGIA... GEZURRA...

4

Hala ere, laster esan ahal izango dugu Txillardegi KORRIKAREN omendua izan dela, Euskaltzaindia ez bezala.

EGIA... GEZURRA...

9

Euskara batuaren sorrera Arantzazuko Biltzarrean abiatu zen, 1968an.

EGIA... GEZURRA...

5

Lehenengo KORRIKA Arantzazun hasi zen, 1980an.

EGIA... GEZURRA...

8

Arantzazuko santutegian, Oteizaren 12 apostoluen eskultura ezaguna dago.

EGIA... GEZURRA...

7

10. KORRIKAREN kantaren leloak honela zioen:
"Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatz, hamar, Euskal Herria KORRIKA!"

EGIA... GEZURRA...

6

10. KORRIKA Arantzazutik Bilbora joan zen, lehenengo edizioa nolabait gogoratzeko asmoz.

EGIA... GEZURRA...

1

Txillardegi euskara batuaren sorreraren bultzatzaile nagusietako bat izan zen.